

Biktimak eta herri-memoria

• ANDONI LEKUONA •

[SOZIOLOGOA]

Egunkari hontan bertan nere lagun-zahar Joxe Azurmendi filosofoak oso artikulu sakona eta garrantzitsua plazaratu zuen orain dela hilabete batzuk izenburu honekin: *Biktimak: Torturatuak* (EGUNKARIA, 99.03.21). Halako zirrara eta hotzikara sentitu nuela garbi aitortuko dizuet. Ez, noski, Joxek, filosofo argiak, biktimen ikuspuntu teoriko sakon eta hotz bat aurkezten duelako, ezaguna zaigun Agurtzane Juanenaren kasua dakarre-lako baizik. Agurtzane bera da gauzaren berri hitz gutxitan hobekien eta zorrotzen adierazten duena: (Ikus 1999.03.02. EGUNKARIA) «inork (salbuepen bat kenduta) ez baitit galdetu: Zer gertatu zitzaizun komisaldegian? Nola-tan bota zenuen zeure burua bigarren pisu batetik?». Trantze estua, latza, larria, dudarik gabe, neska gazte batek bere bizia horrelako arriskuan jartzeko. Zer gertatu zen? Hitz bitan esanda, torturatua izan zela. Baina bai Joxe eta bai ni hunkitu eta dardaratu ginduen ez zen izan torturak izan zirela jakitea, baizik eta Agurtzane gure ezaguna eta laguna torturatua izan zela jakitea. Egia esan, ez da denbora asko Agurtzane ezagutzen dudala eta, ezagutu gainera, nere bibliotekako ibilerak direla eta.

Biktimen arazoa

Biktima hitzarekin gauza asko adierazi litezke. Gure kasurako, gerraren edo gerra-egoeraren eraginez kaltetua bezela hartu dezakegu. Gure kasua diogunean, Euskal Herrietaz ari gara eta gerra, berriz, oinarrian 36ko gerratea izango litzake bere ondorio guztiekin. Sakoneko eta oinarriko ikuspuntu hori kontuan hartu gabe ez dago Euskal Herriko gizaldi hontako historia eta gorabehera guztiak argitzerik eta ulertzerik, jakina, ETA ere histori hortan sartuaz. Hirurogei urte horietan era batera edo bestera kaltetuak izango lirake biktimak. Kalteak desberdinak izan diren bezala, biktimak ere desberdinak izango dira.

Eta orain, bake-prozesuak irauten duen neurrian eta, beraz, indartzen dijoan heinean, ordua dator biktima guztien arazoa, orokorrean, gogoz hartu eta izpirituen eta bihotzen bakea ere, errotti hasita, egiteko. Hor sartuko lirateke, jakina, gerran eta armetan bizia galdu

zutenak eta hauen familiakoak, alde batekoak eta bestekoak; gerra garaian eta ondoren, kartzeletan egon ziranak eta, zer esanik ez, arrastorik utzi gabe desgertu ziranak; gerra ondoren herbestera ihesi joan behar izan zutenak eta kartzeletan, konzentrazio-kanpoetan, *langile bataloietan* eta desterruan sufritu zutenak; orduan eta garai guztietan torturatuak izan direnak: *Batallon Español*, GAL eta ETArek mende heriotza jasandutak eta abar eta abar... Ez dagokit niri eta ez naiz gauza lista oso bat egiteko. Egokiena, agintariekin eta lege-biltzarrek —Euskal Herri osokoak— lan hau bere gain hartzea izango litzateke eta, behar bada, hauen laguntzarekin batzorde bereizi eta independente bat eratu, azterketak eta galdekak egin ditzan, kaltetu guztien eskabideak jaso eta ordainketa egokiak erabakitzeke eta, bai eta ere, gaizkileei kontuak eskatzeko.

Jakina, lehenengo, biktima bakoitzaren kalteak ordaintzea izango litzateke eta, hori, legeak eta ohiturak kontuan hartuaz, ahal den azkarren konpondu behar direla garbi geldi bedi. Gehiago oraindik: kaltetuen taldeak ere onartu ditezke beren interesak ahal den egokien defenditu ditzaten. Baina bada jokatzen bat, ikuspuntu orokorretik inolaz ere onartu ezin litekena: talde batek edo talde batzuk besteen gainetik lehentasuna edo berezitasuna eskatzen dutenena. Kalteak ez dira, noski, berdinak eta ordainak ere ez ondorioz, baina denak dira kontuan hartzekoak. Ez zaio arrazoirik ikusten *terrorismoaren biktimentzat* erakunde aparteko bat sortzeaz, zenbait partiduk eskatu duten bezala, Joxe Azurmendiren hitzetan «arrazapuruko Biktimak» eta «pariak» bereiziz. Horrelako zerbait gertatzen dela pentsatzen dut askotan Juduek beren biktimetaz hitzegtzen dutenean, azkenengo gerratean beste biktimarik izan ez balitz

bezala —ijitoak adibidez— eta joera hori ez dut batere gustokoa. Baina ez dut bide horretatik eraman nahi nire gaurko gogoeta.

Oroitzapen mingarriak

Hain zuzen, Agurtzaneren idazkia izan da, urrutia eta sakonago jotzera bultzatu nauena. Honela dio: «Diskrezioa maite dugu euskaldunok, bai, baina niri (ere) iruditzen zait gurea gehiegizko diskrezioa dela». Eta hor, euskaldunok gizatalde bezela dugun jokaera aipatu eta juzgatzen da. Ni ere puntu hortan erabat ados nago. Baina esan dugun bezala gizatalde baten oinarritzeko joera denez, ez da hori gauetik goizera aldatuko eta beste bide batzuk hartu beharko ditugu.

Batetik, biktima bakoitzaren kasuak daude. Agurtzaneri asko kosta bazaio berea azaltzea eta beste askori ere berdintsu gertatuko zaio. Oroitzapen mingarriak izaten dira biktimenena eta barruko zauri zaharrak berritzeko bildurra izan ohi du biktimak eta, zer esanik ez, plazara atera behar direnean. Biluzik jartzea bezela. Neroni ere horrelako zerbait gertatzen zait, nahiz eta bizitza osoan gizon publiko izatea tokatu. Nerea —ez dut etxekorik nahasi nahi arazo honetan—, egia esan, ez da beste munduko kaltea: 1960. urtean, Francoren gobernua salatuz —tartean torturen arazoa— 339 apaizek agiri bat atera genduen eta, ondorioz, beste birekin, zigortua izan nintzen, orduko gotzaiak Itziartik Aiako Alzolar, Pagoeta mendira bialduz. Baina, egi-egitan ez dut nere burua biktimataz hartzen.

Baina ezin zaio biktima bakoitzari edo familikoei testigutza eskatu eta, gutxiago noski, egunkarietan egitea. Testiguntza horiek, egiten direnak, lehen esandako *Adiskidantza eta Egiaren aldeko Euskal Batzordeak* jaso eta gorde dezake artxibo orokor bat eginez Euskal Herriaren Memori historikoa izan litekena. Baina Erakunde horrek, jasotzaile hu-

tza izan beharrean biltzaile ere izan beharko luke, herriz-herri, testigutzak, paperak eta artxibo guztiak miatuz eta jasoz.

Intzirien basoa?

Baina aurrerago jo beharra dago Herri Memoria berritze honetan. Memori historikoa jasotzerakoan, joera bat, lekuak eta tegiak gerra bukaeran zeuden bezala uztekoa izan zen; txikizioa bere hartan utzi, gorrotoaren piztitzarraren atzaparrak utzitako arrastoa bezela: horrela, pertsonak erretzeko erabili ziran labeak Auschwitz eta abarretan. Labe horiek ikusteko aukerarik ez dut izan, eta, egia esan, irrika haundirik ez dut. Ikaragarria izan behar du dudarik gabe. Antzeko zerbait gertatu zitzaidan Frantziako Oradour herri martiria ikusi nuenean. (Ikus *Oiartzun 85* urtekaria, *Oradour eta Gernika*). Alemanak, iheslan zijoaztenak, mila ta bostehun —330 kalean— biztanlegoko herri osoa armetan hartu eta gizonezkoak tiroz hil zituzten eta emakume eta haurrak elizan sartuarazi eta elizari su eman zioten. Guztira 642 pertsona hil zirela ziurtatua dago. De Gaullek, Frantziako Estatuak, Oradour bere hartan zaintzea erabaki zuen eta gaur ere hartan jarraitzen du. Bixita ixilik eta toki sakratu baten bezela, eliz batean bezela egiten da.

Euskaldunok ere badugu gure herri martiria, Gernika hain zuzen. Bertan ez dago gerra garaiko ez arrastorik eta ez harresirik. Beraz, Oradourgo eredua jarraitzerik ez dago baina horrek ez du zer eginik ez dagoela esan nahi. Nere partetik amets bat egin dut. Euskaldunen *diskrezioaren barruan* herri memoria zaitzeko eta indartzeko leku bat eraiki behar dugu Gernikan; beharrezkoa zaigu, Gernikarik berriz izan ez dedin eta belaunaldi berriak gogoan izan dezaten. Euskal Herria mendi eta baso herria denez gehienbat, baso bat izango litzake; bertako zuhaitzez osatutakoa; haritza izango litzateke nere gustokoa, eta basoan txoko desberdinak eginkizun desberdinekin: explikazioa, testigutzak, listak, argazkiak, zinema, artea, eskulturak eta abar. Izena ere aukeratua daukat: Intzirien basoa.

Amets hutsetan geldituko ote da gure biktimen oroitegi beharrezko hau?

...hemeroteka



Balkanetako egonkortasunaren alde

EDITORIALA

Sarajevon aurreko ostiralean egindako gailurrean batez ere ekonomia- berreraikun-

tzaz jardun zuten, hau da, gai erabakigarri batez, baina egonkortasunak, oraingo, eskakizun militarra ere izaten jarraitzen du. Ezin da arrakastarik izan Balkanetan ez bada be- tearazten Daytongo ba- ke plana, eta horrek ge- rrako kriminal nagu- siak atxilotzea eta iheslariak aberriratzeko eskatzen du.

Ildo beretik, oraindik ere egia da ezin dela egonkortasunik izan Balkanetan Slobodan Milosevicek agintean jarraitu bitartean. Lehen mailako eran- tzukizuna du bere lu- rraldean azken hama- rraldian izandako gerragatik. Nazionalis- mo serbiarra sustatu du, eta hori garesti ate- ra zaio Serbiari, baina

agintean jarraitzeko aukera eman dio. Bill Clintonek pro- mes zehatz batzuk era- man zituen biltzarrera, inbertsio bermeak eta tarifa murriztapenak besteak beste. Europa- rrek Balkanetako berreraikuntzan ai- tzindari izango direla hitz eman dute, baina beren eskaintzak ez ziren horren zehatzak

izan. Egonkortasun itunak zentzua izango badu, Europak apustu handiagoa egin behar- ko du, eta laster. Europak, gainera, hego-ekialdera ireki behar du, baina ez ditu inola ere baztertu behar Europako Er- dialdeko eta Iparralde- ko hainbat herri —Polonia eta Lituania esate baterako— de-

mokratizatzearen alde hartutako konpromi- soak, herriok gehiegi itxaron dute-eta mere- zi eta behar duten babes instituzionala jasotzeko. Kontinente horrek munduan lehen mailako eginki- zuna bete nahi du, baina aipatu horiek guztiak dira aurre egin beharko dien proba nagusiak.